

Ikasle berrientzako harrera plana (2018-2019 ikasturtea)

2018ko irailak 4, 5, 6 eta 7

0. Aurkibidea

0.	Aurkibidea	1
1.	Sarrera. Testuingurua.....	2
2.	Helburuak.....	2
3.	Edukiak.....	3
4.	Metodologia.....	3
5.	Ikastaroaren egitura eta irakasle eta ikasle parte hartzaileak	4
6.	1. eranskina.- Ikasleentzako aurkezpen gutuna	13
7.	2. eranskina.- Lan pertsonaleko memoria plana / Ikasteko teknikak.....	13

Memoria honetan, 2018ko irailaren 4an, 5ean, 6an eta 7an Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan egindako ikasle berrien harrera programa aztertuko dugu.

1. Sarrera. Testuingurua.

Hainbat azterketek adierazten dutenez, ikasketak uzteko tasa handia dago, oro har, ingeniartzan. Horren arrazoiak, besteak beste, honako hauek izan daitezke (askoz gehiago ere badira):

- Ikasle berriek prestakuntzarako lagungarri izan dakieken talde batean sartzeko arazoak izatea. Gabezia bat, lagunaren eta ikaskideen sare soziala ezartzeko.
- Ez jakitea ingeniartzako gradu bat ikastea zer den, zer lan aukerak dauden eta zer lan mota egin ditzakeen ingeniari batek.
- Ingeniaritza ikasi nahi duen ikaslearen profila askotan hau izaten da: sortu eta gauza berriak ikasi eta aplikatu nahi dituzten pertsonak. Aldiz, iristean, lehen mailako irakasgaiak topatzen dituzte, lehor samarrak sarritan, eta ez dute ikusten horien eta ingeniartzaren arteko harremana.
- Motibazio gabezia argi bat, zenbait kasutan.
- Ikaskuntza metodo berrietara egokitzeko zailtasuna.
- Irakasgaietako edukien eta irakaskuntza programazioaren eskakizun maila handia, ikasleen dedikazio handia eskatzen duena.
- Azken batean, egoera askotan, tituluak ez die erantzuten beren itzaropenei.

Testuinguru horretan, iraileko lehen astean (**12 ordu**), eskolen hasiera ofiziala baino lehen, harrera programa integratu bat egiteko aukera planteatu zen, honako helburu hauek lortzeko:

2. Helburuak.

Helburu nagusia ikasle berriak integratzea da, baita ingeniari baten jarduera zer den ezagutaraztea ere.

Horretarako:

- Eskolaren aurkezpena egin behar da, ikasleek eskola eskura eta hurbil sentitzeko moduan. Datozen lau urteetan, "etxean bezala" egongo direla sentiarazi behar diegu.
- Ikasleen artean sinergien sorrera bultzatu behar dugu, eskolak hasi aurretik laguntzak izan ditzaten.
- Talde laneko lehen esperientzia izan behar dute, eta enpresek ingeniariari eskatzen dizkieten gaitasunak ezagutu eta lehen praktika bat egin behar dute, lagungarria izan baitakieke graduako ikasketa osoak egin bitartean.
- Ingeniari batek egin ditzaken lanak eta jarduerak ezagututa, ikasleek horietako batzuekin identifikatu behar dute, karrerarako erreferentzia gisa, motibazio bat gehiago izango baita titulu ikasteko. Argi ikusi behar dute

zein den beren prestakuntzaren azken xedea (adibidez: ingeniartzaren arloan egin nahi dut lan kalitate teknikari gisa, mantentze lanetako teknikari gisa, programazioan, institutuko irakasle gisa, automozioan...).

- Ingeniari batek beharko dituen zeharkako gaitasunak lantzen hasi behar dute; izan ere, industrietan keza hauek iristen zaizkigu behin eta berriro: ingeniartzako gradudunen gaitasunen gabeziak, emaitza akademiko onak dituzten ingeniartzako ikasleen neke handia, ingeniari berriek maila handiko eta pentsamendu kritikoko gaitasun analitikoak ez edukitzea, komunikatzeko eta talde lanerako gaitasunik eza, eta ingeniartzako praktikoaren eta ingeniartzako negozioaren ez ezagutzea.
- Lan tresna eta ohitura batzuk bereganatu behar dituzte, ingeniartzako ikasketak hasteko eta arrakastaz jarraitzeko baliagarriak izango zaizkienak.

3. Edukiak.

Testuinguru horretan, ikastaroa hiruna orduko lau modulutan banatzea planteatu da, egun bakoitzean modulu bat emanda.

MODULUAK:

1. Eskolaren aurkezpen formala + Ingeniarien lana.
2. Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzarako erremintak + Biblioteka
3. Visual Thinking. Ikasteko Teknikak
4. Ahozko aurkezpenak + sormena + arazoaren ebazpena + lidergoa + talde lana.

4. Metodologia.

Pentsatzekoa denez, planteatutako helburuak aintzat hartuta eta ikasleak eskolan integratzeari garrantzi berezia emanda, TAILER erako formatu bat erabili da, parte hartze handiarekin, eta lanaren zati handi bat taldetan egin da.

Lehen moduluan, eskolaren aurkezpen formalean, joan den urtean graduko lehen maila arrakastaz egin zuten 4 ikasleren lankidetzak izan genuen, ikasle berrientzako eredu izan daitezkeelako. Modu osagarrian, ingeniarien lanean, lau ikasle ohik parte hartu zuten, eta beren lan esperientziaren berri emateaz gainera, enpresek gehien eskatzen dituzten gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak izan zituzten hizpide. Bigarren moduluan, "Gizarte Trebetasunak" irakasgaia ematen duten bi irakasleren eta Unibertsitateko Bibliotekaren lankidetzak izan genuen. Hirugarren modulua, berriz, *Norgarak* eman zuen. Eta azken moduluan, eskolako hiru irakasleren lankidetzak izan genuen.

Ikasle berri guztiak 55-60 ikasleko 3 taldetan banatu ziren, lana eta integrazioa errazago egiteko.

5. Ikastaroaren egitura eta irakasle eta ikasle parte hartzaileak

5.1.- Ikastaroaren egitura

Ikastaroa hiru taldeei eman zitzaien, programa honen arabera:

ORDUTEGIA. EGUNAK: 2018ko IRAILAK 4, 5, 6 eta 7.

1. TALDE - GAZTELANIA

ORDUA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
IKASGELA	Eskolarako sarrera	Ikasgela: 102 lehenengo solairua	Ikasgela: 101 lehenengo solairua	Eskola: AS2 sotoa
9.30-10.30	Aurkezpena	Bizitza osoko prestakuntza	Taldea lana Lidergoa/ Sormena/ Ahozko aurkezpenak/arazoak ebaztea	Ikasteko teknikak Azken inkesta
10.30-11.30	Ingeniarien lana	Biblioteka		
11.30-12.30				

2. TALDEA - GAZTELANIA

ORDUA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
IKASGELA	Eskolarako sarrera	Ikasgela: 101 lehenengo solairua	Eskola: AS2 sotoa	Ikasgela: 102 lehenengo solairua
9.30-10.30	Aurkezpena	Taldea lana Lidergoa/ Sormena Ahozko aurkezpenak/arazoak ebaztea	Ikasteko teknikak	Bizitza osoko prestakuntza
10.30-11.30	Ingeniarien lana			Biblioteka
11.30-12.30				Azken inkesta

3. TALDEA EUSKARAZ

ORDUA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
GELA	Eskolaren sarrera	Eskolan: AS2 sotoan	Ikasgela: 102 1. soilaruan	Ikasgela: 101 1. soilaruan
9.30-10.30	Aurkezpena	Ikasteko teknikak	Bizitza osoko prestakuntza	Taldea Lana Lidergoa/sormena Ahozko aurkezpenak/ Arazoak ebaztea GPPa berrikustea. Azken inkesta
10.30-11.30	Ingeniarien lana		Liburutegia	
11.30-12.30				

5.2.- Irakasleak eta ikasle egresatuak:

2018ko Harrera Planaren programan, irakasle eta ikasle egresatu hauek parte hartu zuten:

Ikasleak:

Eskolaren aurkezpena:

- Iker López
- Goizalde Badiola
- Arkaitz Merino
- Borja Labarta
- Unai González
- Nadia Reina
- Antxon Uri
- Héctor Valverde
- Yolanda Martinez
- Uhma Aitana Sánchez
- Violeta Ureña
- Julen Gasco
- Jon Ander Lasa
- Víctor Giménez

Ingeniarien lana:

- Eneko González de Durana
- Itziar Eguibar
- Jorge Aarón Morán
- Xabier Echeverría

5.3.- Parte hartu zuten ikasleak

Matrikula berriko 115 irakasleek erantzun zioten azken eguneko inkestari.

Taldea	Parte hartzaileak
Gaztelania	71
Euskara	44
Partaidetza osoa	115


6.- Inkestaren emaitzak

1.- Zer iritzi duzu egindako ikastaroaz?

01 TALDEA ETA 02 TALDEA (Gaztelania)


1. galdera.- Gaiak gogokoak izan ditut
2. galdera.- Gaiak ondo eta sakon aztertu dira
3. galdera.- Ikastaroaren iraupena egokia izan da
4. galdera.- Hizlariak ikastaroa modu atseginean eman dute
5. galdera.- Adibideak egokiak izan dira

Gaztelania TALDEA



	Balio1	Balio2	Balio3	Balio 4	Balio 5
1.Galdera	2	10	27	24	8
2.Galdera	0	5	23	29	14
3.Galdera	3	19	25	16	8
4.Galdera	1	2	23	25	20
5.Galdera	1	3	19	28	20


Euskara TALDEA



	Balio 1	Balio 2	Balio 3	Balio 4	Balio 5
1.Galdera	1	1	20	19	3
2.Galdera	0	2	14	15	13
3.Galdera	4	11	11	12	6
4.Galdera	0	0	2	17	25
5.Galdera	0	2	9	23	10

2.- Balioetsi Harrera Programan landutako modulu bakoitzaren erabilgarritasuna 2017/18 ikasturteari begira.


1. Aurkezpen ekitaldia



	Balio1	Balio2	Balio3	Balio4	Balio5
Euskara	0	2	11	27	4
Gaztelania	0	7	14	37	13
Guztira	0	9	25	64	17

Inkestetako balorazioa positiboa da. Iritzi positiboen artean, ikasle ohien presentzia eta programaren erabilgarritasuna nabarmentzen dira. Ostera, inkestatutakoen iritziz, aurkezpen ekitaldia luzeegia izan zen.


2. Ingeniarrien lana



	Balio1	Balio2	Balio3	Balio4	Balio5
Euskara	0	0	7	15	22
Gaztelania	1	6	17	23	24
Guztira	1	6	24	38	46

Inkestetako balorazioa positiboa da. Ikasle batzuek graduren bateko ikasle ohien hutsunea nabarmendu zuten.


3. Bizitza osoko prestakuntza



	Balio1	Balio2	Balio3	Balio4	Balio5
Euskara	1	7	16	17	3
Gaztelania	3	19	24	20	5
Guztira	4	26	40	37	8

Programaren modulu balorazioa baxuena da. Hala ere, 3.16/5 batez besteko puntuazioa lortzen du.


4. Liburutegi



	Balio1	Balio2	Balio3	Balio4	Balio5
Euskara	3	6	8	23	20
Gaztelania	7	7	25	22	10
Guztira	10	13	33	45	30


Hainbat galdekeetan 1 balorea agertzen da. Ikasleentzat, programaren "Liburutegi" parte luzezia izan zela irizten diote, baita, aspergarria ere.

5. Talde lana. Lidergoa/sormena: Ahozko aurkezpenak. Arazoen ebazpena




	Balio1	Balio2	Balio3	Balio4	Balio5
Euskara	1	2	5	19	17
Gaztelania	2	7	15	32	15
Guztira	3	9	20	51	32

6. Ikasteko teknikak



	Balio1	Balio2	Balio3	Balio4	Balio5
Euskara	3	9	15	13	4
Gaztelania	5	9	20	22	14
Guztira	8	18	35	35	18

Ikasitako modulu bakoitzaren ebaluazio bateratua aztertzen dugu:




7. Adierazi, mesedez, zer hobetuko zenukeen: antolaketa, gai zerrenda, iraupena...

Parte hartzaileak, oro har, gustura daude harrera programarekin. Hala ere, hainbat iradokizun egin zituzten:

- a) Gehienetsitakoa, programaren ordua murriztea da, inkestetan 28 ikaslek emandako iradokizuna (% 24,34a).
- b) "Timing"-az gain, gutxiengo ikasleek programazio plangintzan gabeziak ikusten dituzte.
- c) Ikasleek Eskolan ikasiko dituzten gaiet buruzko informazio gehiago eskuratzeko beharra azpimarratzen dute (% 5a).

8. Zergatik aukeratu duzu gure Eskola zure unibersitate-ikasketak egiteko?



- 1.Arrazoia: Kokapenagatik
- 2.Arrazoia: Unibersitate publikoa izateagatik
- 3.Arrazoia: Prezioagatik
- 4.Arrazoia: Irakaskuntzaren kalitateagatik
- 5.Arrazoia: Beste edozeinean onartu ez nautelako
- 6.Arrazoia: Bestelakoak

Kontuan izan behar da, 6. Motiboan (Bestelakoak) erantzun hau aukeratu duten ikasle guztiek, argudiatu dute, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola da Automozioa titulazioa eskaintzen duen Eskola bakarra.

7. Eranskina.- Ikasleentzako aurkezpen gutuna

2018/2019 IKASTURTEKO HARRERA PROGRAMA

PROGRAMA DE ACOGIDA PARA EL CURSO 2018/2019

Ikasle hori:

Eskerrak eman nahi dizkizugu oraingo une honetatik zurea den Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola (IUE) aukeratzeagatik ikasketak egiteko. Ez zaizu damutuko, ez horixe! Kontuan hartu denok ari garela gogor lanean UPV/EHUko ikastegi honetan ahalik eta ongien egon zaitezten. Eta denok diodanean, hauetaz ari naiz: administrazio eta zerbitzuetako langileak, irakasleak, zuzendaritza taldekoak. IUE zure bigarren etxea izango da datozen lau urteotan. Hemen, ikasi, lagunak egin, zure irakasleekin ikasi eta zure etorkizuna prestatuko duzu.

Hori dela eta, zure eskola honekiko integrazioa erraztu eta lehenbailehen lehenengo eskuz ezagutzeko zertan datzan ingeniari baten lana, harrera programa bat antolatu dugu lehen mailako irakasgaien eskolak ematen hasi aurretik. Enpresek, Unibertsitateko Bibliotekak eta ikastegiko irakasleek aktiboki parte hartu duten 12 orduko programa horretan, deskubrituko duzu zertan lan egin dezakeen ingeniari batek enpresa batean, zein den bere eginkizuna, zer gaitasun bereganatu behar dituen. Bestalde, gradudun guztiek, batez ere ingeniaritza arlokoek, izan behar dituzten hainbat gaitasun lantzen hasiko gara: talde lanean aritzeko trebetasunak, arazoak konpondu, ahozko aurkezpenak egin, lidergoa edota informaziorako baliabideen erabilera fidagarria. Hori dena giro lasai batean eta teknika dinamiken erabileran oinarrituta egingo da. Eta, horietan, aktiboki parte hartu beharko duzu.

Behin berriro ere ematen dizkizugu eskerrak gu aukeratzeagatik. Kontuan izan behar duzu ingeniartzaren arlo zoragarrian sartzea erraztuko dizun ate aparta irekitzen ari zaizula. Gure

Estimado/a alumno/a:

Deseamos agradecerte que hayas elegido esta Escuela Universitaria de Ingeniería (EUI), que ya es tuya desde este momento, para realizar tus estudios. Seguro que no te vas a arrepentir, y, queremos que tengas en cuenta que todo el personal, tanto el de administración y servicios, como el profesorado, como el equipo de dirección, estamos trabajando duro para que te encuentres lo más a gusto posible en este centro de la UPV/EHU. La EUI será tu segunda casa para los próximos cuatro años. Aquí estudiarás, harás amigos/as, aprenderás con tus profesores/as y forjarás tu futuro.

Por ello, para facilitar tu integración en la Escuela y para que conozcas de primera mano y lo antes posible en qué consiste la labor de un ingeniero, hemos desarrollado un programa de acogida, previo al comienzo de las clases de las asignaturas de primer curso. En dicho programa, de 12 horas de duración, y en el que han participado activamente empresas, la biblioteca universitaria y profesorado del centro, vas a descubrir de qué puede trabajar un/a ingeniero/a en una empresa, cuál es su función, qué competencias tiene que desarrollar. Además, empezaremos a trabajar algunas habilidades que tiene que tener todo/a graduado/a, en especial en el campo de la ingeniería: destrezas tales como el trabajo en equipo, la resolución de problemas, la realización de presentaciones orales, el liderazgo o el uso solvente de los recursos de información. Todo ello en un ambiente distendido y basándonos en el empleo de técnicas dinámicas y en las que tendrás que participar activamente.

De nuevo queremos expresarte nuestro agradecimiento por habernos escogido. Ten en cuenta que se te está abriendo una puerta excelente para facilitarte el trabajo en un área

ikasleak oso ongi prestatuta ateratzen dira. Horren froga dira Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolatik ateratako ikasleek beren zerbitzuak ematen dituzten enpresa eta erakunde ugariak. Enpresa horiekin jarraitzen dugu etengabeko harremanetan, ematen dugun prestakuntza behar bezain gaurkotuta dagoela bermatzeko.

Gure desio bakarra da gogotsu has zaitezten. Ondotxo dakizu bidea ez dela erraza, baina gogoratu behar duzu gakoa hasieratik etengabe lan egitea dela. Eutsi goiari eta gogoan izan beti jo dezakezula irakasleengana edo zuzendaritza taldeko kideengana edozein orientazioz edo iradokizunez galdetzeko.

Hau da irailaren lehenengo asterako arretaz diseinatu dugun harrera programa. Nahitaez joan behar da, zure ikasketei begira oso lagungarri izango dela jotzen baitugu. Animo! Gainera, kreditu bat lortuko duzu baldin eta harrera ikastaroan hartu dituzun apunte eta gogoetetzosten bat aurkezten badiguzu.. Eskerrik asko.

IUEko zuzendaritza taldea

apasionante como es la ingeniería. Nuestro alumnado sale perfectamente preparado, y así lo atestiguan la multitud de empresas e instituciones en las que prestan sus servicios los/as titulados/as de esta Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz; empresas con las que seguimos manteniendo un contacto permanente para asegurar que la formación que se imparte está perfectamente actualizada.

Sólo queremos que comiences con ganas, ya sabes que el camino no es fácil, pero recuerda que la clave es el trabajo continuo desde el principio. No te desanimes y ten en cuenta que siempre puedes acudir al profesorado o al equipo de dirección para cualquier orientación o sugerencia que consideres oportuna.

Este es el programa de acogida que hemos diseñado con esmero para la primera semana de septiembre. Es de asistencia obligatoria, porque consideramos que puede serte de gran ayuda para tus estudios. ¡Ánimo! Además, conseguirás un crédito si nos presentas un informe con los apuntes y reflexiones que hayas tomado durante este curso de acogida. Muchas gracias.

El equipo de dirección de la EUI